


Azken egun hauetan ezagutuzera eman dira 2020 urteari dagozkion Euskadi sarien irabazleak.

Euskarazko haur eta gazte literaturako arloan Anjel Lertxundi (Orío, 1948) aukeratu dute, *Haltzaren muinoa*-rengatik, Antton Olariaga irudigilearen parte-hartzea eta laguntza paregabea duen liburua. Maisua dugu euskal letretan Lertxundi eta are gehiago umecentzako liburuetan. Arbola bera, haltz bat, mintzo zaigu, izuturik, uholtze erraldoi batek errotik ateratzen eta ibaian behera daramakion bitartean, itsasorantz; atzean, landako bizitza eroso eta lasaia. Abentura bikaina, kapitulu laburrez egina, erritmo ikaragarrikoa, tradizio onenarekin lotua.

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) izan da Euskarazko literaturakoan garaile. 80ko hamarkadaren hasieran kokatu du *Argiantza*, Ereinek argitaratutako liburua, hainbat zinema areto kudeatzen zituen kudeatzaile baten pertsonaia ardatz bezala hartuta. Urte zehatza, 1982a, hautatu du horretarako Lizarralde; egun gutxitan gertatutakoa kontatzeko, 88 orrialdeko nobela honetan, haren estilo bereizgarriarekin. Bidegintzaren agerpenaren ostean zinemagintzak izaniko beheakadaren hasiera kontatzeko balio zaió. Bigarrenez irabazi du Euskadi saria, aurrekoan 2002an izan zen, *Larapetit* liburuarekin.

Itzulpenaren saria, euskaraz, berriaz, Joxan Elosegirentzat (Irun, 1955) izan da, Irene Soláren *Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak* lanarengatik. Alberdaniak plazaratu du katalanez eta gaztelaniaz aurretik oso arrakastatsua izan den liburua. Kritikariaren bulkada eta babesa bazuen lan honek (eta sari sorta handia dagoeneko atzetik). Eleberriz eozihiko eta bertzaileak dela, hala diote. Funtsezkoa zen, beraz, hizkeraren aberastasuna hizkuntz ontzi-aldaketan, euskaratze prozesuan, ez galtzea; hor legoke Elosegiren meritua.

Aurtengo Euskadiko Literatur Sariak



Txani Rodríguez, Javier de Isusi, Alex Gurrutxaga eta Mikel Reparaz, besteak beste, sarituak izan ziren

Saiakera modalitatean, euskaraz, Alex Gurrutxaga Muxikari eman diote, *Xabier Lere, aberriaren poeta kantaria*-gatik. Epaima haikideen iritzian, Lere berriakurtzeko gonbidapen interesgarria egiten du Gurrutxagak. Liburua opari bat da dagoeneko Lere maite dutenentzat eta aukera paregabea, bestetik, haren gana hurbiltzeko, belaunaldi berrientzat. Euskal literatura eta kultura musikala, eduki akademiko landuarekin batera, Lere-ten ildo biografikoan txertatzen dira saiakera honetan. Gurrutxaga (1988) doktorea da

euskal literaturan, eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Lourdes Otaegiren zuzendaritzapean doktoretza egin zuen Xabier Lere-ten poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat tesiarekin, seguruenik saio honen aitzindaria zen testua.

Javier de Isusi (Bilbao, 1972), iaz komiki arloan sari nazionala lortu ondoren, *La divina comedia de Oscar Wilde*-engatik, aurtengo Euskadikoan podiumean dugu, beste liburu batekin, *Transparencias, historias del exilio colombiano*-en burua duen eleberriz gra-

fiko hau dela eta. Kazetaritza eta komikia, aldi berean tartekatzen dituen lana, eta erbestearen eta migrazioaren inguruan mintzo dena. Hego Amerikako herrialde batzuen egoera eta errealtate soziopolitikoak agerian jartzea du helburu, historia pertsonalen bitartez, biktimak eta bizirik irtenakoen ahotsak. Astiberri argitaletxearen apustua.

Mikel Reparaz (Pamplona, 1975) kazetaria, nazioarteko informazioan aditua, bestetik, gaztelaniazko saiakera batekin izan da saritua: *Las grietas de Amé-*

rica (Península) izenekoa. Bizitza profesionala bidaiatzen eman du Reparazek, EITB bezalako komunikabideentzat lanean, berriemaile moduan, hainbat gatazka eta bake prozesuetan, eta Bruselan edo, azken urteetan, New Yorken, finkaturik, berriemaile gisa. Liburua, Estatu Batuetatik egin dituen goitiki beherako joanaldi ezberdinen irudikapena da, gaien gaurkotatuna nagusitzen delarik: Donald Trumpen agintaldian egon den estatuen indarkeria eta arrazakeria estrukturalarekin kritika da Reparaz, desparkeotasun sozialak, diskriminazioa eta zapalketa mota ezberdinak oinarri dituzten istorio hauetan, bidean ikusi eta entzundakoak.

Azkenik, Txani Rodríguez (Llodio, 1977), Pompas de papel eta Périgolako kolaboratzailea, izan da garaile gaztelaniazko literatura sailan, *Los últimos románticos* (Seix Barral) lanagatik, irakurri dudanez laster zinema-pantailetan ikusi ahal izango dugun narrazioa. Xehetasun txiki arretaz begira dagoen eleberriz da hau, trebeki eta maitasunez eraikia, freskoa eta intimoa. Interesgarriena, Rodríguez deskribatzen duen giro industrial, haurtzarotik gertutik ezagutu duena. Fabriketako jendea, solidaritatea, lehia sindikalak, grebak; kontakizuna, zorrotza izanik ere, liriko da. Pertsonaia, Iruñe, ezagutzen dugun edonor izan daiteke, gutarik bat, tamaina erdiko herri batean bizi den emakumea, bizitzaren errutinetan jautzi den norbait.

Aitor Francos

Errumaniako literaturaz mintzo bagara, gaur egungoaz behintzat, izen handi bat etorriko zaigu burura: Mircea Cărtărescu (Bukarest, 1956). Benetan letra larriez idatzi beharrekoa. Ezin dut ukatu zirrara ikaragarria sorrarazi ninduela *Errulelatazalea* lehenbiziko aldiz irakurtzeak. Impedimenta argitaletxeak gaztelaniatu zuen eta gutxira. Harrituta gelditu nintzen, Kafkaren oinardeko zuzenena eta fidele- na baizen hura, maisuraren mailara iristen zena. Bixente Serrano Ixok, liburua euskaratu zeneko garaian (Denonartean, 2011) kritika batean zioen bezala, ipuin horrek iradokitzen du badagoela erreallitateari erreferentzia egiterik amets(gaito)en bidez. Irakurle muturreko absurdoaren erdian kokatzen du egileak, eta zentzuga bekeriara, eta ondorioz, tragediara, bideratzen dira pertsonaia nagusiaren asmo guztiak.

Narrazio gile (eta saiakeragile) ikaragarria dela argi dago, luzera handiko liburuetan ere. Bestela, har ditzagun *Solenoid* edo *Nostalgia* –sekulakoa, monumentalak–. Ezin laburbildu orrialde horietan, literatura (maiuskulaz ere hau), noraino eramaten duen. Europako idazleen artean, prestigio handienakoa eta beste hizkuntza askotara itzulua (Españian, obra gehiena, Marian Ochoa de Eribek gaztelaniatu du eta eskertu beharko genioke lortutako perfektio maila).

Baina funtsean Cărtărescu poeta bat da. Eta ez da nik asma-

'Beat' errumaniarra



tutako gauza, autotek aitorutakoa baizik, elkarriketetan. Gaztetan bakarrik idatzi zuen poesia, 80 hamarkadako belaunaldiaren partaide zelarik. Orduan, tresna zen hura erresistentzia kulturalerako, Ceaucescuren diktaduraren azken urteak zetozela jakinik. Orduko literatura herriarentzat zen, herriarena, hobe esanda, eta gose eta ernegazioaz bete zegoen, libertatearen eske. Horregatik, askatasuna eskuratzeko beharrezkoa zitziolako, poesia hori ardatz bezala, rock-a eta Be-

at-ak zituen, Gary Snyder, Ferlinghetti, Gregory Corso... beste batzuen eraginarekin batera: Ezra Pound, John Berryman... Unibertsitatean zegoela autore hauen poemak zeukaten bereganatzeko haietarik asko itzultzen hasi zen Cărtărescu, banan-banan, erritmoa eta barne-mekanismoak ezagutu eta bereak egin zituen arte. Marian Ochoa de Eribek hitzaurrean dioenez, *Ginsberg-en Oihua* poemaren hasiera obsesioa zen Cărtărescurentzat. Beat taldekoak edonon agertuko dira testuetan, zuzenki edo aipamen ezkuten bidez: estiloan, gaietan, erritmo-abiaduran.

Ondorioz, zer nagusitzen da Cărtărescuren poesian? Hitzaren libertatea eta nahasmena. Berretsetak, poema luzeak. Barruan:

parodia, aipamenak, collageak, hitz joko prosodikoak. Eta ironia. Ez dago ia lekuri intimitateko, soilik munduz kanpoko deskribatzeko eta irudimenaren bidez deformatzeko. Ez dago ornamenturik, dena patua da, dena esanahi.

Poesia eragina du gure bizitzetan. Felipe Juaristik berriki idatzita utzi du honako hau (Itzultzeko etorri naiz liburuan): Poesia itzultze bidez, izatearen etxerainoko terrorera luzatzen, jatorrizko egoerara darman odisea neke.

Bueltako bidea, betiere. Zentzuaren bilaketan, garen horren eraketan.

Cărtărescuena, ibialdi horretan, eskutik helduko digu.

A. F.